

ARRAINAK SENDATU DITU HARTZAREN ERREDURAK

Benda moduan jarrita, tilapia azalak salbatu ditu Kaliforniako hartzen hankak

 **NATURA** / Mikel Zubimendi Berastegi

Hartzen eta tilapia arrainen arteko elkarkidetzak erredura handiekin zauritutako animalia eta pertsonak azkarrago eta hobe sendatzeko esperantzari leihoak zabaldu dizkio. Albaitaritza klinikoan lehen aldiz frogatu den teknikari esker, Kaliforniako basoetako suteek erretako hartz beltzen hanken sendaketan aurrerakuntza izugarriak lortu dira.

Hartzak eta arrainak ez dira elkarren oso lagunak. Nork ez ditu dokumentaletan ikusi grizzly hartzek, kreatura maiestatetsu horiek, izokinak arrautzak errutera doazenean egiten dituzten banketeak? Hartzak eta arrainak, baina, apurka-apurka, elkarrekin arituz, oso bes-telako aukerak ematen hasiak dira eta pertsonentzat osasun arazo global bat dena konponbidean jartzeko aukera ere ireki dute.

Kalifornian guardia zibilik ez dagoela bagenekien, RIP talde arrasatearraren kantu mitikoak hala erakutsita. Notizia, baina, notizia on-ona, Kaliforniatik dator. Duela aste gutxi eman da jakitera. Hain zuzen, iazko abenduan Kaliforniako sute ikaragarriek, eskualde hark historian izan dituen handienak, larriki erretako lau hartz beltz naturara, Los Padres erreserba naturalera, libre bueltatu dituztenean.

Erredura oso larriekin erreskatatu zituzten lau hartzok, horietako bi hankak erabat erreta, haragi bizian, zutik jar-

tzeko gai ere ez zirela. Gainera, hartzetako bat, emea, kumea izatekotan zen. Arazoa gaizto-tzen zuen horrek: tratamendu luze batek sortzen duen estresak eta itxitura baten barnean egon behar izateak hartz amak kumeak errefusatzeko arriskua handitzen du.

Kaliforniako Arrantza eta Basabizitza Departamenduko albaitariak ez zekiten erredura larri horiek sendatzerik baze- goen, eta, egotekotan, hartzak eta bere kumeak salbatu eta naturara bueltatzerik egongo ote zen ala ez.

BRASILETIK HELDUTAKO INSPIRAZIOA

Brasiletik hartu zuten Kaliforniako albaitariak hartzaren erredurak arrain azalarekin tratatzeko ideia. Tilapia arrai- na aspaldidanik erabiltzen da pertsonen erreduren trata- menduan Hego Amerikako he- rrialdean. Tilapia azalak kola- geno asko ditu, eta, hala, erreduren sendatze prozesua azkartu eta mina gutxitzen du.

Beste herri aurreratuago ba- tzuetan ez bezala, Brasilen ez dituzte giza-azala, zerri-azala eta beste alternatiba artifizial batzuk hain eskuragarri. Tila- pia azal esterilizatua, baina, bi-

garren eta hirugarren mailako erredurak sendatzeko benda bezala oso erabilia da. Senda- tzeko denbora laburtu, kostu ekonomikoak merkatu eta mi- na txikiagotu, perfektua da!

Brasildik ideia hartuta, le- hen aldiz animalia basatiekin probatzea erabaki zuten Kali- forniako albaitariak. Denbora irabazi eta mina txikitzea xe- de, mina arintzeko akupuntu- ra, tratamendu kiropraktiko eta laser hotzeko terapiekin batera, arrain azalarekin egin- dako bendak jarri zizkieten hartzei. Beste benda mota ba- tzuk ez bezala, tilapia azala zaurietan presio iraunkorra egin eta azal artifizial bezala erabili zen zauriak sendatzen ziren bitartean.

Hein batean, abentura bat izan zen, albaitari medikun- tzan sekula probatu gabeko zerbait. Eta izandako arrakasta ikusita, etxeko animalien eta animalia basatien erredurak tratatzeko bide berri bat zabal- du da. Aurkikuntza garrantzi- tsua da, animalia basatiak sen- datzeko teknika azkarrak zenbat eta gehiago garatu, or- duan eta denbora gutxiago egon beharko baitute itxiture- tan gatibu. Horrek, noski, izu-


garri areagotzen du animaliok naturara itzultzeko aukera.

Azken batean, Kaliforniako hartzen kasuan ez zegoen soi- lik animalion biziraupena jo- koan. Horrelako tratamendu esperimentaletan pilotzen den jakintza ere jokoan zen, ikasi- takoak gerora erredurak trata- tzeko izango duen balioa.

ARTO-HOSTOA ETA ARROZ-PAPERA

Kaliforniako albaitariak irudi- katu gabeko itsasgarritasuna demostratuz, eta hesgailu konbentzionalekin ez bezala hartza etengabe anestesiatu, benda zaharrak kendu, senda- keta egin eta benda berriak jartzeko premiarik, tilapia aza-

lari esker hamar egunetan ika- ragarrizko hobekuntza izan zuten erretako hartzek. Egune- tara beren hanken gainean jar- tzen hasi ziren, eta, orduan, al- baitariak kezka eragiten zien beste demontre bat konpondu behar izan zuten: animalia ba- saren senak, hots, arraina jate- ko hartzek duten berezko joe- ra naturalak ez ote zituen bultzatuko hanka azpi zapalak miazkatu eta jatera.





Ezkerrean, anestesiatutako hartz beltzaren hanka kiskaliak. Behean, tilapia arrainaren irudia, albaitari bat tilapia azala hartzaren hanketan itsastan eta ebakuntza ondoren hartzaren errekupeztan.
CALIFORNIA DEPARTMENT OF FISH AND WILDFIRE

Zergatik ez zuten hartzek hanketan bilduta zuten arrain gozoa jan? Azala esterilizatu, sikatu eta arto-hosto edo arroz-paperean bildu zutelako, horrela arrain usaina gal zezan

Ez zegoen soilik hartz beltzen biziraupena jokoan. Tratamendu esperimentaletan pilatzen den jakintza ere jokoan zen, ikasitakoak gerora erredurak tratatzeko izango duen balioa

Eta nola lortu zuten demon-
tre hori zuzentzea? Nola lortu
zuten hartzek hanketan bildu-
ta zuten arrain gozo-gozoa ez
jatea? Hori lortzeko albaitari-
ek irudimenez betetako irtenbi-
dea aurkitu zuten: arrain azala
esterilizatu, sikatu eta arto-
hosto edo arroz-paperean bil-
tzea, horrela arrain usaina era-
bat galduko zela ziurtatuz.
Izandako arrakastaren era-
kusle, hartzak jada libre dira

Kaliforniako basoetan. Garaio-
tarako hibernaziorako zuloak
eginda edo arroketako kobak
bilatuta izan ohi dituztenez,
basoan propio egindako gor-
delekuetan askatu zituzten.
Beren habitat natural kiskali-
tik ez oso urruti, lepokoekin
eta gordelekuetan kamerak ja-
rrita. Kamerek eta lepokoek
igorritako irudi eta datuek
erakusten dutenez, ondo sen-
datu dira, aurrera egin dute.

Lortutako emaitzek anima-
lien erredura larriak sendatze-
ko bide berriak zabaltzen di-
tuzte. Pertsonekin ez bezala,
animalien erredura larrientzat
ez daude “azal-emaile ban-
kuak”, eta, oraindik orain, inor
ez da gai izan haien zat bende
biologikoak sortzen.
Eta pertsonentzat, berdin.
Brasilgo medikuntzako ohiko
praktika zena, aurrerantzean,
batez ere garapen bidean dau-

den herrialdeetan, salbaziora-
ko aukera izan daitekeelako.
ESPERANTZARAKO BIDEA ZABALDU
Albaitarien meritua aitortuz,
hartzek bizi nahi eta indarra-
rena bezala, tilapia arrainari
ere eskerrak eman behar zaiz-
kio, noski. Arrain honen hazte-
giak ugaltzen ari dira etenga-
be. Arto eta sojarekin egindako
bolatxoak pozez eta azkar ja-
ten dituzte, pisua erraz irabaz-

ten dute eta aise bihurtzen du-
te jasotako dieta merkea eros-
learentzat oso merkea den
arrain haragi gozo. Gainera,
orain, haragiari tilapia azalari
emandako erabilera berria
gehituta, arraian preziatuaren
balioa biderkatu egin daiteke.
Hori, eta baita tilapia hazte-
giek hainbat herrialdeetan era-
giten dituzten jasangarritasun
eta kutsadura arazoak ere.
Argi dago tilapia azala ez de-
la berehalakoan herrialde ga-
ratuetako ospitaletara heldu-
ko, demagun Gurutzetako
Erredura Handien Unitatera.
Baina garapen bidean diren
herrietan kanpoan egiten di-
ren suak eta keroseno sukalde-
ak hain ugariak izanik, erredu-
rekin zauritutako ehunka mila
lagunentzat (Indian urtero mi-
lioio bat direla dio Osasunaren
Mundu Erakundeak) esperan-
tzarako bidea zabaltzeko dute Ka-
liforniako basoetan erretako
hartz beltzek eta haren senda-
garri izandako tilapia arrainek.

